



**2026-2030 BIGARREN MAILAKO HORNIDURA-SAREA BERRITZEKO OBRAK KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3288**

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Oier Galdos Emaldi
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (aurrerantzean, BBUP) kudeatzen duen edateko ura banatzeko bigarren mailako tokiko sarea berritzea (aurrerantzean, sarea berritzea), BBUPrekin hitzarmena sinatuta duten udalerri guztietan. Obrak egiteko kontratu honek sarea berritzeko jarduketa ugari biltzen ditu, BBUPren udal-hornidurako sareen esparruan. BBUPk edateko ura hornitzeko instalazio eta sare ugari ditu Bizkaiko udalerrietan. Instalazio horien bidez, hornidura-instalazioen ahalik eta erabilgarritasun eta eraginkortasun handiena bermatu behar da, eta kontuan hartuta hornidura-sareetan haustura-maiztasuna oso handia dela, beharrezkoa da aldaketak, zuzenketak eta berritzeak egikaritzea, horiek funtzionamendu-premien araberako egoeran mantentzea ahalbidetzeko.

2.- Bete beharreko premiak: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) hainbat urtez garatu du bere banaketa-sareen kudeaketa aurreratu eta proaktiboa, sektorizazio hidraulikoaren, kontsumo-patroien analisiaren eta presioen optimizazioaren bidez, eta efizientzia eta kontrolean hobekuntza esanguratsuak lortu dira. Hala ere, neurri operatibo horiek beren mugara iritsi dira hodian egiturazko zahartzearen aurrean, horien narriadura progresiboak matxurak eta galerak izateko arrisku gero eta handiagoa sortzen baitu, eta jada ezin da eutsi azpiegiturak berritzeko zuzeneko inbertsiorik gabe.

3.- Lotetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez



B.- KONTRATUAREN XEDEA

Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:

- **1. LOTEA (15 udalerri):** Abanto, Alonsotegi, Balmaseda, Gordexola, Gueñes, Ortuella, Santurtzi, Trapaga, Zalla, Galdames, Sopuerta, Turtzioz, Muskiz, Sestao eta Zierbena.
- **2. LOTEA (22 udalerri):** Bakio, Barrika, Berango, Derio, Erandio, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gorliz, Larrabetzu, Laukiz, Leioa, Lemoiz, Lezama, Loiu, Maruri-Jatabe, Morga, Mungia, Plentzia, Sondika, Sopela, eta Urduliz.
- **3. LOTEA (23 udalerri):** Arantzazu, Areatza, Arrigorriaga, Artea, Atxondo, Bedia, Dima, Elorrio, Etxebarri, Galdakao, Igorre, Iurreta, Izurtza, Lemoa, Mañaria, Urduña, Ubide, Ugao-Miraballes, Usansolo, Zaldibar, Zaratamo, Zeanuri, Zeberio.
- **4. LOTEA (29 udalerri; 13 +16):** Amoroto, Aulesti, Ereño, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Munitibar, Nabarniz, Ondarroa eta Ziortza-Bolibar. Eta Ajangiz, Arratzu, Bermeo, Busturia, Ea, Elantxobe, Forua, Gautegiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Mundaka, Murueta, Muxika eta Sukarrieta.

Parte hartzeko/adjudikatzeko muga:

Lizitatzaille bakoitzari lote bakarra esleitu ahalko zaio, bai banaka bai aldi baterako enpresa-elkarte baten baitan.

Lehenik eta behin, 1. lotea ebaluatuko da; bigarrenik, 2. lotea; hirugarrenik, 3. lotea eta, azkenik, 4. lotea.

Izan ere, 1. lotean lehenengo postua lortzen duen lizitatzailleak ezingo du 2., 3. eta 4. loteetako lehenengo postua eskuratu. Hala ere, proposamen ekonomikoa kontuan hartuko da eskaintzen sailkapena zehazteko, baita batez besteko baja kalkulatzeko ere. Era berean jardungo da 2. eta 3. loteetako lehen sailkatuarekin.

Muga hori ez da aplikatuko baldin eta 2., 3. edo 4. loteetako batean lizitatzaille bakarra edo eskaintza baliodun bakarra badago. Kasu horretan, loteen adjudikaziodunak bat etorri ahal izango dira lizitatzaille bakarra edo eskaintza baliodun bakarra dagoen lotearekin.

Lizitatzailleak adjudikazioari uko eginez gero, lau loteen eskaintzari berariaz uko egitea ekarriko du, bai banaka bai aldi baterako enpresa-elkarte bateko kide gisa.

4.- CPV:

CPV kodea: 45232150-8

Deskribapena: Ura banatzeko hodiekin lotutako lanak

5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

HOGEITA HAMAR MILIOI (30.000.000 €) euro

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: HOGEITA HAMAR MILIOI (30.000.000 €) euro

Loteak:

☒ BAI

☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

	2026	2027	2028	2029	2030	Total
Lote 1	50.000	1.500.000	1.750.000	2.000.000	2.200.000	7.500.000
Lote 2	50.000	1.500.000	1.750.000	2.000.000	2.200.000	7.500.000
Lote 3	50.000	1.500.000	1.750.000	2.000.000	2.200.000	7.500.000
Lote 4	50.000	1.500.000	1.750.000	2.000.000	2.200.000	7.500.000
Total	200.000	6.000.000	7.000.000	8.000.000	8.800.000	30.000.000

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

- 2026---. urtea--- 45210 - 60113 partida -- 200.000,00 €
- 2027---. urtea--- 45210 - 60113 partida -- 6.000.000,00 €
- 2028---. urtea--- 45210 - 60113 partida -- 7.000.000,00 €
- 2029---. urtea--- 45210 - 60113 partida -- 8.000.000,00 €
- 2030---. urtea--- 45210 - 60113 partida -- 8.800.000,00 €

5.-Prezioak berrikustea:

☒ BAI

☐ EZ

Aplikatzekoa den formula:

Kontratuari urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretua aplikatuko zaio. Dekretu horren bidez, administrazio publikoen obra-kontratuen eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen prezioak berrikusteko oinarritzko materialen zerrenda eta forma-eredu orokorrak onesten dira.

1359/2011 Errege Dekretuaren II. ERANSKINAREN arabera («Obra-kontratuen eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen prezioak berrikusteko formulen zerrenda»), obrarako erreferentziako prezioak berrikusteko formula hau izango da:

- 5. OBRA HIDRAULIKOAK. 561. formula: Eduki altua siderurgian, zementuan, arroketan eta agregakinetan. Tipologia adierazgarrienak: Hornidurako eta saneamenduko instalazioak eta hoditeriak.

$$Kt = 0,10Ct / C0 + 0,05Et / E0 + 0,02Pt / P0 + 0,08Rt / R0 + 0,28St / S0 + 0,01Tt / T0 + 0,46$$



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

Prezioak berrikusteko formuletan "t" azpiadierazlearekin azaldu dira material bakoitzaren prezioen adierazleen balioak kontratua betetzeko aldiari dagokion hilabeteen. Horren zenbatekoa berrikusi egin behar da, baita ere formularen atera den berrikusteko Kt koefizientea. Horretaz gain, "0" azpiadierazlearekin irudikatu dira material bakoitzaren prezioen adierazleen balioak 9/2017 Legearen 103. artikulua 4. apartatuak aipatzen duen egunean.

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Partzuergoko organo-eskudunak onetsitako hileroko ziurtagiriaren bidez.

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupena guztira: BERROGEITA ZORTZI HILABETE (48 hilabete)

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Berme-epea: Enpresa adjudikaziodunak eskainitakoa baina inoiz ez URTEBETE (01) baino

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

SAILKAPENA

G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

SAILKAPENA

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.



ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatzen diren taldea, azpitaldea eta kategoria: E taldea, 1. azpitaldea, 6. kategoria

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabeko irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.



Aurkeztutako proposamena pleguan zehaztutako balorazio teknikoko irizpideen arabera ebaluatu ahal izateko, dokumentazio teknikoak memoria izango du, ondoren zehazten den ordenan eta edukian egituratuko dena:

a) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia

- Justifikazio- eta azalpen-memoria, lizitatzailleak kontratuaren berezitasunaz duen ezagutza adieraziko duena. Izan ere, bigarren mailako hornidura-sarea berritzeko jarduketa ugari biltzen ditu, bai eta jarduketek jarraitu behar duten prozesua ere: Plangintza, aurretiazko lanak eta bideragarritasun-txostena, baloratutako memoriak idaztea eta jarduketak gauzatzea (15 puntu).
- Jarduketak gauzatzeari buruzko atalaren barruan, sarea berritzeko beharrezkoak diren eraikuntza-prozesuak deskribatuko dira, baita hura gauzatzeko modu teknikoa ere, teknologiaren xehetasunarekin, eta kontratuaren garapenean zehar gainditu beharreko zailtasunak identifikatuko dira, gehienak hiri-inguruneetan gauzatuko direla aztertuta (15 puntu).

b) Obrarako jarriko diren bitartekoak eta lanen programazioa (18 puntu)

- Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak:

Organigrama eta obrarako proposatzen den antolamenduaren deskribapen funtzionala entregatuko dira eta lantaldea definituko da, prestasuna zehaztuta eta langileen kualifikazioa eta esperientzia azalduta. ABEEen kasuan, argi eta garbi definituko da enpresa parte-hartzaileen funtzioen banaketa.

Bi jarduketa aldi berean gauzatzea aztertuko da, eta proposatutako taldeen zerrenda xehatuko da; kopurua eta eskulanaren eta makinaren dimentsionamendua zehaztuko dira, baita ere jabetza eta obrarekiko konpromisoak, ongi arrazoituta.

Lizitatzailleak uste badu beharrezkoa dela lanen zati bat hirugarrenekin hitzartzea, horien izenak, erreferentziak, aurrekontuarekiko ehunekoak eta konpromiso-gutunak adieraziko dira eta, edonola ere, enpresa-profila edo sailkapena.

- Aldi bereko bi jarduketako lanen programa:

Ohikoena lote bakoitzean aldi berean bi jarduketa egitea izango da. Eskaintzak lan-programa bat izango du, obrak garatzeko egiten den planteamendu orokorrarekin, obren kokapena kontuan hartuta, eta koherentea izan beharko du obrak egiteko proposatutako bitartekoen aurreikusitako errendimenduekin.

EZ DA PUNTURIK EMANGO LANEN EPEAK MURRIZTEN BADIRA

c) Ingurumen-irizpideak

Kontratuan zehar garatu beharreko prozedura-proposamenak eta baliabideak aztertuko dira, haien ezaugarrietara eta berezitasunetara egokituta, lanak egiten diren bitartean ingurumen-inpaktuak prebenitzen eta minimizatzen direla bermatzeko.

Dokumentazio teknikoaren edukia gehienez ere 30 Din A-4 orrialdekoa izango da memoria teknikorako, 30 Din A-4 obraren eskura dauden bitartekoen atalerako eta 6 Din A-4 ingurumen-neurrietarako. Karaktereen gehieneko tamaina ez da izango Microsoft Word-en "11" Arial baino txikiagoa eta atal guztiak modu korrelatiboan zenbakituko dira. Salbuespen-kasuetan Din A1 eta Din A3 orriak erabili ahalgo dira



horrela aurkeztu beharreko dokumentaziorako. Orrialdeak zenbatzen direnean ez dira kontuan hartuko azalak, aurkibideak eta obrako lantaldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duten agiriak. Hala, azken informazio hori eranskin bereizi batean atxiki beharko da. Ingurumen-irizpideak baloratzeko zuzen eguneratutako ziurtagiriak emango dira eta irismena jasota egon beharko da.

Aurreko baldintzak urratuz gero, eskaintzailearen balorazioa zehatu egingo da. Ezarritako mugak gainditzen dituen orrialde bakoitzeko eskaintza teknikoaren puntuazioan 0,05 puntu galduko dira.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK:

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatu beharko du, BUPren prezioen oinarriari baja lineala aplikatuta, eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Adjudikaziodunak proposatutako bajaren ehunekoa (%) aplikatzearen ondoriozko prezio unitarioak lotesleak izango dira adjudikaziodunarentzat, eta prezio horiek erabiliko dira jarduketan gauzatze materialaren aurrekontua baloratzeko. Gauzatze materialaren aurrekontuari gastu orokorren eta industria-irabazien kontzeptuan % 19 aplikatzearen ondoriozko jarduketa gauzatzeko aurrekontua.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentetza/Ordezkoa:
Ekaitz Menthaka Corral jauna.

Kideak (titularrak/ordezkariek):
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria (titularra/ordezkariek):
Gerardo Latorre Pedret jauna.

Adituen batzordea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (B_i) proportzioan baloratuko dira formula matematikoekin. Balio hauek esleituko dira:

B_{max}	50 puntu
$(B_{max} + BM) / 2$	48 puntu
BM	47 puntu
$0,8 \times BM$	46 puntu
$0,6 \times BM$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu horien balioak aurretik adierazi den K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

Non:

B_i : Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.

B_{max} : Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.

BM : Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, B_i bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < B_i \leq 0,6 \times BM$

$$P_i = \frac{B_i}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < B_i \leq 0,8 \times BM$

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < B_i \leq BM$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < B_i \leq (BM + B_{max}) / 2$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BM)}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{max})}{(B_{max} - BM)} \times 2$$

Formula horien bitartez eskuratutako P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurreko K_1 koefizientearekin biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia-----30 puntu

- Plangintza, aurretiazko lanak eta bideragarritasun-txostena, baloratutako memoriak idaztea eta jarduketak----- **15 puntu**

- Sarea berritzeko beharrezkoak diren eraikuntza-prozesuak, sarea egikaritzeko modu teknikoa eta kontratua garatzean gainditu beharreko zailtasunak identifikatzea-----**15 puntu**

**Obrarako eskuragarri jarritako bitartekoak----- -
18 puntu.**

- Kontratura bideratuko diren baliabideak-----**10 puntu**

- Aldi bereko bi jarduketako lanen programa -----**8 puntu**

Ingurumen-irizpideak ----- -2 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaientza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaientzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaientzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaientzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaientzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaientzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaientzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaientzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaientza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaientzak aurkeztean badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaientzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaientzarik baxuena, eskaientza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaientzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Enuntziazioa: Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Administrazio baldintza berezien pleguaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasiarako ekarpenaren betebeharra

☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikatu behar.

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Obra-zuzendaritza

Lanen kontrola eta ikuskaritza Partzuergoko zerbitzu eskudunek egingo dute obra-zuzendaritzaren bidez. Hala, kontratatutako obra zuzen egiteko ikuskaritzak, egiaztapenak eta zaintza-lanak gauzatuko dituzte, administrazio baldintza berezien pleguaren 4. eta 24. klausuletan xedatutakoa betez.

Obrako seinaleak eta kartelak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu beharko ditu proiektuaren lan-segurtasunaren eta -osasunaren azterlanean adierazitako elementuak, zehazki, obretarako sarbidea, lanak egiten diren espazioko zirkulazioa, puntu arriskutsu posibleen kokapena eta abar adierazteko, bai obra-gunean bai eta inguruetan eta mugetan ere. Gainera, administrazio baldintza berezien pleguaren 23. klausularen aginduak bete beharko dira.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez kudeatu beharko ditu udal-baimen guztiak, salbu eta aldambioak, ibiak eta hesiak jartzeko, hartuneetarako galtzadak irekitzeko eta abarretarako obretarako udal-lizentziak. Hala, bere kargura izango dira oso-osorik kudeaketako gastuak eta tasak. Aurreko gastutik salbuetsita egongo da bakarrik udalak obren udal-lizentziaren kontzeptuan fakturatutako zenbatekoa, hala badagokio.

Era berean, bere kargura izango dira beste erakunde batzuetan (aldundian, etab.) baimenak izapidetzeko gastuak (abalak, etab.), baldin eta haren eskumeneko eremuetan gurutzatzeak edo jarduketak egiten badira.

Baloratutako zerrendak

Kontratistak proposatutako hileko zerrenda baloratuak bc3 ziurtapen-formatuan aurkeztu beharko dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Lizitatzaillearen eskaintzan obrari esleitutako gainerako langileen edo haien arduraldiaren edozein aldaketa behar bezala justifikatu eta onetsi beharko du Obra Zuzendaritzak. Aldaketarekin ados ez badago, edo eskainitako ekipoa betetzen ez badu (obrarri esleitutako pertsona-kopurua, eskainitako kualifikazioa eta arduraldia), 1.000 euroko zehapena aplikatuko da eguneko, hileko ziurtagiritik deskontatuta. Obra Zuzendaritzak hala eskatuta eskainitako taldea obran behin eta berriz ez egotea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.